

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DONOSTIAKO UDALAREN 2018KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den urriaren 29an, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen honako hauen ekonomia- eta finantza-kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena: Donostiako Udalarena; bere hiru erakunde autonomoena (DonostiaTIK, Kirolaren Udal Patronatua eta Musika eta Dantzaren Udal Eskola); bere bi Enpresa Erakunde Publikoena (Etxebizitza eta Donostia Kultura, zeinak San Telmo Museoa SAre eta Victoria Eugenia Antzokia SAre % 100eko jabetza baitu); eta bere zazpi sozietate publikoena (Eguskiza Higiezin Sozietatea SA, Donostiako Tranbia Konpainia SA, Donostiako Hileta Zerbitzuak SA, Donostia Turismoa SA, Anoeta Kiroldegia SA eta Bainuetxearen Sozietatea SL).

2018ko ekitaldiko **Urteko Kontuei** dagokienez, HKEEK **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 33,6 milioi euroan murriztuko litzateke. Gainera, Udalaren Egoera Balantzeko Ibilgetu ez Finantzarioaren saldoek ez dute data horretan ondasun-zerrendan barne hartutako ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen eta erakunde autonomoetan ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik jakiteko 2018ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzeko ibilgetuaren zenbatekoek ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duten. Berebat, txostenak azpimarratu du baloratu gabe daudela Eguskiza Higiezin Sozietatea SAre aktiboa osatzen duten lursailak.

Fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorretik eratorritako **finantza egoerari** dagokionez, HKEEK adierazi du Udalak **ez duela baimendutako zorpetzea baliatu behar izan azken 2 ekitaldietan**. Gainera, 2018ko ekitaldian **gora egin du Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinak**, izan ere sortutako aurrezki garbia ez da beharrezkoa izan ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko.

Udalaren Kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, Udalaren mendeko administrazio publikoaren sektorea osatzen duten erakundeek **2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, eta zorraren muga bete dute**. Udalaren mendeko sozietate ez finantzario modura sailkatutako erakundeei dagokienez, Kontu-hartzaitzak ondorioztatu du **finantza-orekako** egoeran daudela.

Udalak, bere erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek eta sozietate publikoek zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz unean uneko akatsak azaleratu diren honako atal hauetan: Langileen Gastuetan (Udalak PFEZtik salbuetsitako lan etekintzat jo ditu ordaindutako erretiro aurreratuko sariak) eta Administrazioako Kontratazioan (Udalak zuzenean esleitu ditu hornidura bat eta bi zerbitzu-prestazio, eta Anoeta Kiroldedia SAK obra kontratu bat; gainera, kontratuak iraungi ostean, egikaritzen jarraitu dute zerbitzu publikoaren emakida bat (Udalan) eta lau kontratu (Udalan, Kirolaren Udal Patronatuan, Kulturako EEPn, San Telmo Museoa SAN eta Victoria Eugenia Antzokia SAN).